



Eskola kirola – 2017-2018ko lehiaketa araudia

TXIRRINDULARITZA

1. ARTIKULUA.

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, Arabako Txirrindularitza Federazioarekin eta horri atxikitako kirol klub edo elkarteekin elkarlanean, 2018ko eskolarteko kirol jokoetako txirrindularitza denboraldia antolatu du, eskola heziketa osatzea, ikasleen nortasuna modu orekatuan garatzea, gorputz eta osasun ezaugarri jakin batzuk lortzea, eta adin handiagoan kirola egiten jarraitzea posible egingo duen prestakuntza helburu harturik.

2. ARTIKULUA.

Irabazteko xederik gabeko erakundeek (klubek eta kirol elkarteek), 2018ko eskolarteko kirol jokoetan parte hartu eta horretarako ezarriko diren dirulaguntzak jaso nahi badituzte, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuan inskribatu beharko dira (erakundea eta parte hartzaileak), horretarako ezarritako epeen barruan.

3. ARTIKULUA.

Arabako Foru Aldundiak honako aseguru motak egingo dizkie eskola kiroleko programetan aurreikusitako kirol jarduerara guztietako parte hartzaileei:

- A) Osasun laguntzako aseguru, parte hartzaileak beste arrazoi batengatik osasun laguntzarako eskubiderik ez badu. Aseguru horren onuraduna izateko, kirol jarduna hasi baino lehenago eskatu beharko du, eskaera arazoitu eta dokumentatuko duelarik.
- B) Erantzukizun zibileko aseguru.
- C) Galera anatomiko edo funtzionalengatik edo, aseguru legeriak onartzen dituen kasuetan, parte hartzailearen heriotzagatik kalteak ordaintzeko aseguru.

B) eta C) ataletan eskatutako estaldura bermatzen dien aseguru poliza bat edukiko dute eskola kiroleko kanpainen parte hartzeko edozein sistematan parte hartzen duten guztiak.

Eskola kiroleko kanpainen inskribaturiko erakunde orok haren berariazko ezaugarriak ezagutarazi beharko dizkie parte hartzaileei, eta bereziki adingabekoen legezko ordezkariari, batez ere honako datu hauek aipatuz: aseguruaren estaldura sistema, parte hartzailea inskribatuta dagoen erakundearen antolamendu ezaugarriak, eta egiten duten kirol jarduerara erabat ezagutzeko interesgarriak izan daitezkeen datu guztiak.

4. ARTIKULUA.

Arautu egiten da 2018ko eskolarteko txirrindularitza jokoak garatzeko joan-etorriak eskatzeko sistema:

1. Joateko direnen kopuruagatik autobusa kontratatzea gomendagarria den guztietan, garraio bide hori jarriko da interesdunen eskura, horretarako ezarritako aurrekontu mugen barruan.
2. Edozein taldek, zerbitzu hori erabili ahal izateko, apirilaren 27ko 442/2001 Errege Dekretuak xedatutakoa betetzen duen arduradun bat (adinduna) izan beharko du, dekretu horretan eskola garraioaren eta adingabekoen garraioaren segurtasun baldintzak ezarri baitira.
3. Interea duten erakundeek Arabako Txirrindularitza Federazioa jo beharko dute lehiaketa egunaren aurreko astelehenean, arratsaldeko 8ak baino lehen, garraio bide horren erabilera eskatzeko.
4. Joan-etorrietarako autobusa eskatu eta gero, erakundeak erabakitzen badu ez duela erabiliko kontraturiko autobusa, eta erabaki horren berri garaiz ematen ez badu, edo gorago aipatutako laguntzailea falta



izateagatik autobusa erabili ezinik geratzen bada, antolatzaileek jarritako beste garraio batzuetatik kanpo geratu liteke denboraldi osorako, eta ez du eskubiderik izango joan-etorrietarako bestelako laguntzarik ere jasotzeko.

5. Parte hartzen duen erakunde batek garraio zerbitzua eskatu eta ezezkoa erantzuten bazaio, bai joan-etorria edo ibilbidea egin behar duten bidaiarien kopuruarengatik, bai ordutegiaren bateraezintasunarengatik edo bestelako arrazoiengatik, joan-etorria beste garraiobide kolektibo batean edo ibilgailu partikularretan egin ahal izango du, eta horretarako dirulaguntza eskatu ahal izango du, eskola jardueretako joan-etorrietarako dirulaguntzak emateko deialdian.

5. ARTIKULUA.

Arabako Foru Aldundiak kasuan kasuko foru aginduaren bidez ezarritako kategoriak eta aplikazio eremuak finkatuko dira

KATEGORIA	JAIOTZA URTEAK	APLIKAZIO EREMUA
BENJAMINAK	2008-2009	Araba
KIMUAK	2006-2007	Araba
HAURRAK	2004-2005	Araba

6. ARTIKULUA.

6.1 Parte hartzen duten erakunde guztiek gymkana jokoa izan beharko dute.

6.2 Parte hartzen duen erakunde bakoitzak begirale titular bat eta egoki deritzon adina monitore laguntzaile eduki beharko ditu.

6.3 Parte hartzaile guztiek beren erakundeak ematen dizkieten jantziak erabili beharko dituzte, eta kasko gogorra, nahitaez.

6.4 Parte hartzaile guztiek, denboraldiaren hasieran eman zaien dortsala eraman beharko dute ezkerrean, aldakaren parean, eta ezin izango dute hura moztu edo txikitu. Dortsala ahaztekotan, salbuespen gisa beste bat jarri ahal izango dute haren ordean.

7. ARTIKULUA.

7.1 Edozein bizikleta motarekin parte hartu ahal izango da, baldin eta garapenak eta eskulekuaren zabalerak (gehienez 50 cm) baldintzak betetzen baditu.

7.2 Bizikletetan eraman ditzaketen gehieneko garapenak honakoak dira:

7.2.1 Benjaminen eta kimuen kategoriak

Baimendutako gehieneko garapena 5,45 metrokoa da (680 mm-ko gurpilekin 46x18ko garapenaren baliokidea, edo 600 mm-ko gurpilekin 46x16ko garapenarena).

7.2.2 Haurren kategoria

Baimendutako gehieneko garapena 6,40 metrokoa da (48x16)

7.2.3 Ez da onartuko ez platera ez piñoia blokeatzerik.

7.2.4 Matxura mekanikorik izatekotan, bizikletaz aldatu ahal izango da lehiaketaren barruan.



7.2.5 Parte hartzen duten neskek dagokien kategorian edo beheragoko hurrengoan parte har dezakete, eta kategoria hori denboraldi osorako aukeratuko dute. Proba hauetan parte hartu nahi duten kadete kategoriako neskek haurren kategorian, 2. urtean, parte hartuko dute, eta garapen berdina erabiliko dute.

7.3 Mendiko bizikletaz egiten diren probetan, ezin izango da parte hartu espezialitatekoa ez den bizikleta batekin, ezinbesteko arrazoia izan ezik. Arrazoi hori entrenatzaileak justifikatu beharko dio epaimahai teknikoari. 7.1 eta 7.2 ataletako berezitasunak ez zaie aplikatuko BTT bizikletei, ezta ibilbide probetan erabiltzen direnean ere.

8. ARTIKULUA.

Edozein motatako proben antolaketan laguntzen duten erakundeek, hogeita hamar egun lehenago, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Arabako Txirrindularitza Federazioaren egoitzan:

8.1 LINEAKO PROBAK

Dokumentazioa:

- “Seinaleei, segurtasunari eta laguntzaileei buruzko txostena”
- “Rutometroa”, honako hauek jasotzen dituen: proba egiten den herria eta lekua, izena emateko lekua, ibilbidea, kilometro kopurua, itzuli kopurua.
- Ibilbidearen krokisa

Zehaztasun teknikoak:

- Erakunde laguntzaileek prestatzen duten zirkuituak ez du desnibelengatik edo arriskuagatik gehiegizko zailtasunik izan behar, seinaleak erabat ondo jarrita egon behar dira, eta behar bezala identifikatutako pertsonak egongo dira, bidegurutzeak eta ibilgailuak irten daitezkeen lekuak kontrolatzeko.
- Irteerako eta helmugako eremuek gutxienez 150 metroko luzera eta gutxienez 4 metroko zabalera izan beharko dute.
- Proben garapena mailakaturik eta harmonikoa izan dadin, kilometro taula hau kontuan izan beharko da:

Kategoria	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urria	Gehienez
Benjaminak	1,2/1,5 km	1,5/2 km	2/2,5 km	1,5/2 km	2/2,5 km	3 km
Kimuak	5/6 km	7/8 km	8/9 km	7/8 km	8/9 km	10 km
Haurrak	12/14 km	14/17 km	17/18 km	14/17 km	17/18 km	20 km

- Gainera, lasterketa buruko ibilgailu bat —lehenengo parte hartzailearen aurretik, 150 eta 200 metro bitarteko distantziara joan beharko dena— eta epaimahai teknikoak erabiltzeko beste ibilgailu bat egon beharko dira.

8.2 MENDIKO BIZIKLETAKO PROBAK

Dokumentazioa:

- “Seinaleei, segurtasunari eta laguntzaileei buruzko txostena”
- “Rutometroa”, honako hauek jasotzen dituen: proba egiten den herria eta lekua, izena emateko lekua, kilometro kopurua, itzuli kopurua.
- Ibilbidearen krokisa
- Lursaila erabiltzeko baimena, jabeak emana.

Zehaztasun teknikoak:



Erakunde laguntzaileek prestatzen duten zirkuituan seinaleak erabat ondo jarrita egon behar dira; zirkuituaren % 25 asfaltoa izango da, % 25 bidea eta % 50 larrea. Hala ere, distantzia horiek zirkuituaren zailtasunaren arabera berraztertuko dira. Halaber, aukeratutako zirkuitua desnibelengatik edo arriskuagatik zailegia ez dela bermatuko dute.

Proben garapena mailakatua eta harmonikoa izan dadin, kilometro taula hau kontuan izan beharko da:

Kategoria	Apirila	Maiatza	Ekaina	Iraila	Urria	Gehienez
Benjaminak	0,8/0,9 km	0,9/1,2 km	1,2/1,5 km	0,9/1,2 km	1,2/1,5	1,5 km
Kimuak	2,5/3,5 km	3,5/4,5 km	4,5/6 km	3,5/4,5 km	4,5/6 km	8 km
Haurrak	7/9 km	9/10 km	10/12 km	9/10 km	10/12 km	15 km

8.3 GYMKANA PROBAK

Dokumentazioa:

- “Rutometroa”, honako hauek jasotzen dituen: proba egiten den herria eta lekua, izena emateko lekua eta egin beharreko ariketak.

Zehaztasun teknikoak:

Parte hartzaileei proba egitea eragozten dien desnibelik eta oztoporik gabeko eremu batean prestatu beharko dute zirkuitua erakunde laguntzaileek.

Proba bakoitzeko elementu kopurua eta motak taula honen arabekoak izango dira:

<u>Kategoria</u>	1. Gymkana	2. Gymkana	3. Gymkana	4. Gymkana	5. Gymkana
Benjaminak	* Birlak lerroan * Uztaiak lekuz aldatzea * Baloiak * Ohol bukaera	* Birlak sigi-sagan * ListoiPETIK igarotzea * Uztaiak sartzea * Tranpolina	* Paraleloak * Baloiak * Birlak lerroan * ListoiPETIK igarotzea	* Paraleloak * Birlak sigi-sagan * Uztaiak lekuz aldatzea * Ohol bukaera	* Birlak lerroan * Uztaiak sartzea * Baloiak * Tranpolina
Kimuak	* Birlak sigi-sagan * Kurba bikoitza * Tranpolina * Botilatxoa * ListoiPETIK igarotzea	* Birlak biribilean * Baloiak * Kurba itxia eskuinetara * Botilatxoa * Ohol bukaera	* Birlak sigi-sagan * Igarobidea * Tranpolina * Botilatxoa * Ohol bukaera	* Birlak lerroan * Igarobidea * Baloiak * Tranpolina * Ohol bukaera	* Birlak sigi-sagan * Baloiak * ListoiPETIK igarotzea * Biribilari itzulia * Ohol bukaera
Haurrak	* Tranpolina * Baloiak * Igarobidea * Sur Place * Zurrumbilo exozentrikoa	Euskadiko eskola jokoetako ariketak	* Baloiak * Sur Place * Gurpila desmuntatzea * Zurrumbiloa * Ohol bukaera	* Birlak biribilean * Tranpolina botilatxoarekin * ListoiPETIK igarotzea * Biribilari itzulia * Ohol bukaera	* Birlak biribilean * Igarobidea * Tranpolina botilatxoarekin * Sur Place * Kurba bikoitza

Gymkanak hilabete bakoitzaren amaieran jartzea gomendatzen dugu, haurrak indarberritu ahal izateko.



9. ARTIKULUA.

9.1 Proba egiteko egun, herri eta orduekin loturik egiten diren aldaketen berri eman beharko die, idatziz, entitate laguntzaileak interesa duten guztiei, bost egun lehenago.

9.2 Orobat, parte hartzen duen erakunde bakoitzak egiaztatu egin beharko du zein tokitan, egunetan eta ordutan egingo den proba.

10. ARTIKULUA.

Proben antolaketan laguntzen duten erakundeak zirkuitua garbitzeaz arduratuko dira, eta lekua lehen zegoen bezalaxe utzi beharko dute.

11. ARTIKULUA.

11.1 Parte hartzaile bakoitza bere interesen alde egitera beharturik dago, eta debekatuta dago kirol lehiaketa orotako joko garbiaren aurkako edozein laguntza edo akordio.

11.2 Probaren erdira iritsi aurretik itzulia kendu dioten edo lehiaketa buruko ibilgailuak harrapatzen duen parte hartzaile orok proba utzi egin beharko du. Geroago galtzen dutenek itzulia, aldiz, jarraitu ahal izango dute.

11.3 Lasterketak irauten duen bitartean, ezin izango dira parte hartzaileak jan-edanez hornitu.

11.4 Irabazleak helmugako lerroa pasatu eta gero pasatzen dutenean helmuga joko da amaitutzat proba txirrundulari guztientzat, itzulia kendu ala ez.

11.5 Itzulia kendu dieten parte hartzaileak, probako garailearekiko galduta dauzkaten itzuliekin sailkatuko dira.

12. ARTIKULUA.

12.1 ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN 2018ko *CHALLENGEA* eratzen da egutegiko proba guztiekin.

12.2 Proba bakoitzean lortutako sailkapenaren arabera, ondorengo baremoari jarraituz esleituko dira puntuak kategoria bakoitzean:

12.3 Gymkana probak

12.3.1 Proba hauetako sailkapena penalizazioen baremoaren arabera egingo da (1. eranskina).

12.3.2. Jasotako penalizazio puntuen arabera ezarriko da sailkapeneko hurrenkera, eta punturik gutxien duena izango da irabazlea. Berdinketa izanez gero, proba egiten denbora gutxien eman duenaren alde desegingo da.

Postua	Gymkana
1.a	10 puntu
2.a	9 puntu
3.a	8 puntu
4.a	7 puntu
5.a	6 puntu
6.a	5 puntu
7.a	4 puntu
8.a	3 puntu
9.a	2 puntu
10.a eta gainerako parte hartzaileak	1 puntu



12.4 Probak lerroan, Btt probak eta proba mistoa:

Postua	<u>Lerroan, Btt eta mistoa</u>
1.a	5 puntu
2.a	4 puntu
3.a	3 puntu
4.a	2 puntu
5.a eta gainerako parte hartzaileak	1 puntu

12.5 Puntu berdinketa egonez gero, gymkana probetan posturik onenak izan dituen parte hartzaileak lortuko du sailkapeneko posturik onena.

12.6 *Ex aequo* azaltzen diren sailkapenetan, egoera horretan dauden parte hartzaileetako bakoitzari eman beharreko puntuak haietako lehenengoari dagozkionak dira.

12.7 Baldin eta 2017-2018 denboraldiaren hasieran kategoria bakoitzari dagokion urteko 3 neska edo gehiago badago, neska horiek beren *challengea* izango dute neska kopuru hori dagoen kategoriatan. Txirrindulariren batek beheragoko hurrengoko kategoriaren batean parte hartu nahi badu, ez zaio kontuan hartuko *challengea* egiteko, eta hura egingo balitz, ezingo luke parte hartu.

Puntuak emateko, emakumezkoen challengerik baldin badago, kontuan edukiko da mutilen artean eta nesken artean lortutako postua, bereizirik. Emakumezkoen challengerik ez izatekotan, lortutako benetako postua konputatuko litzateke.

12.8 Eman beharreko puntuazioa berdin-berdina izango litzateke emakumezkoen eta gizonezkoen challenge-an.

13. ARTIKULUA.

13.1 Ez da eskola kiroleko trofeorik emango. Gehienez ere opari bat eman ahalko zaie parte-hartzaile guztiei.

13.2 Denboraldia bukatzean, eta denboraldi bukaerako festako ospakizunen barruan, ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN 2015KO *CHALLENGEKO* mutilen eta nesken kategorietako irabazleei maillot egiaztagarri bana emango zaie.

Bigarren eta hirugarren sailkatuek domina jasoko dute.

Ezin izan bada nesken *challengerik* egin, opari bana emango zaie parte hartzaileei.

14. ARTIKULUA.

14.1 Egingo diren proben egutegian Euskadiko Eskolarteko Jokoetako proba ere sartuko da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskatuta Euskadiko Txirrindularitza Federazioak erabakitzen duen egunean eta tokian.

14.2 Nesken nahiz mutilen haur kategorian sailkatutako lehenengoek parte hartuko dute proba horretan – araudiak ezarriko du zenbatak parte hartuko duten- , Arabako ordezkari bezala.

14.3 Proba hori noiz egingo den jakin eta gero, Arabako Txirrindularitza Federazioak postu horiek konputatzeko azken eguna ezarriko du.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

15. ARTIKULUA.

15.1 Zehapenek izaera hezitzailea, prebentziozkoa eta zentzatzalea dute, eta haiek ezartzeak betiere interes orokorra eta kirol interesa babestea izango du helburu. Horregatik, epaileek, araudia eta arautegia betearazteaz gainera, lan pedagogikoa egin behar dute, eskola kiroleko programaren espiritu “ludiko-kirolzalea” lortzeko. Zehapenak aplikatzean, arau hauslearen asmoa eta egitearen edo ez egitearen emaitza hartuko dira kontuan, batez ere.

15.2 Kasu larrietan, hurrengo baremoan jasotako zehapenak (penalizazio bakar bati dagozkio) bikoiztu ahal izango dira, gehienez. Gainera, falta larria egiten duen txirrindularia berehala kanporatu ahal izango du lasterketatik epaimahai teknikoak.

15.3 Hortaz gain, lasterketako gorabeherak zehatu egingo dira, Arabako egutegiko proba guztietan aplikatzekoa den hurrengo baremo honetan azaldutakoari jarraituz.



LASTERKETAKO GORABEHERETARAKO ZEHAPEN BAREMOA

Lasterketako gorabeherak	Penalizazioa
1. Izena eman gabe abiatzea	Irteera debekatzea
2. Proba bateko irteera lekura behar bezalakoa ez den bizikleta batekin azaltzea	Irteera debekatzea
3. Proba batean, behar bezalakoa ez den bizikleta erabiltzea	Lasterketatik kanporatzea edo deskalifikatzea
4. Parte hartzaileak irteera lekuan nahitaezko kaskoa ez izatea	Irteera debekatzea
5. Parte hartzaileak, proban, nahitaezko kaskoa kentzea	Kanporatzea. 2 puntu.
6. Dortsala gaizki ipinita egotea edo ez ezagutzeko modukoa izatea	1 puntu
7. Talde bereko parte hartzaileen artean abiadazko erreleboak egitea (araz kontrakoa)	1 - 3 puntu.
8. Talde desberdinetako parte hartzaileen artean abiadazko erreleboak egitea (araz kontrakoa)	Kanporatzea. 1 - 3 puntu.
9. Azken esprintean traba egitea, beste txirrindulari batzuei traba egiteko asmoz araz kontratuta jokatzeko, esprintean aukeratutako pasabidetik desbideratu eta gainerako parte hartzaileak arriskuan ipintzea, helmugan azken esprint lehiatuan esku bat edo biak eskulekutik kentzea.	Deskalifikazioa 1 - 3 puntu.
10. Araz kontrako esprinta	Bere pelotoiko azken postuan sailkatzea 1 - 3 puntu.
11. Maillotari heltzea	2 puntu.
12. Talde bereko parte hartzaileen artean elkarri bultza egitea.	Puntu bana inplikaturako parte hartzaileei
13. Beste talde bateko parte hartzaile bati bultza egitea.	Kanporatzea. 1 - 3 puntu.
14. Ikusleek bultza egitea.	Lehenengoa: ohartarazpena Bigarrena: 1 puntu
15. Parte hartzaile bati nahita traba egitea	Kanporatzea 2 puntu
16. Zirkuitu batean elkarri laguntza ematea, horretarako baimenik ez badago.	Inplikaturako parte hartzaileak Kanporatzea 1 - 3 puntu
17. Ibilbidetik nahita desbideratzea, ibilbide osoa bizikletaz egin gabe bere burua sailkatzen saiatzea.	Kanporatzea 1 - 3 puntu.
18. Iruzur egitea, iruzur egiten saiatzea, talde desberdinetako parte hartzaileen arteko akordioa.	Inplikaturako parte hartzaileak Probatik kanporatzea 1 - 3 puntu
19. Probaren antolatzaileek edo epaimahai teknikoak emandako jarraibideak ez betetzea.	1 - 5 puntu
20. Irainak, jokabide eta hitz zakarrak, gainerako parte hartzaileekiko edo ikusleekiko errespeturik eza.	1 - 5 puntu
21. Parte hartzaileen arteko indarkeriazko ekintzak	1 - 5 puntu
22. Beirazko ontzi bat eramatea edo botatzea	2 puntu
23. Probaren noranzko berean eta dortsala ipinita Helmugako marra berriz zeharkatzea.	Lehenengo aldia: ohartarazpena Bigarren aldia: 1 puntu
24. Dortsala ez kentzea, probatik baztertu edo hura bertan behera utzi ondoren	Lehenengo aldia: ohartarazpena Bigarren aldia: 1 puntu
25. Baimenik gabe jan-edanez hornitzea	Lehenengo aldia: ohartarazpena Bigarren aldia: 1 puntu

16. ARTIKULUA.

Proba egin eta hurrengo egun baliouduneko 20:00ak baino lehen jakinaraziko zaizkio probaren emaitzak erakunde laguntzaileari.

17. ARTIKULUA.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Begiraleei dagokie erreklamazioa egiteko eskubidea. Epaimahai teknikoak jasotako erreklamazioak eta beren ebazpenak probaren aktari erantsiko zaizkio.

18. ARTIKULUA.

18.1 Probako gorabeheraren batekin edo han hartutako erabakiren batekin zerikusirik duen erreklamazio oro epaimahai teknikoari aurkeztu behar zaio.

18.2 Onargarriak izan daitezten, erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko dira, eta parte hartzaile bakar batek sinatuta. Erreklamazioaren arrazoia zein den garbi azaldu beharko da, falta zein den eta tartean diren pertsonak nortzuk diren jasoz.

18.3 Epaimahai teknikoak modu eta epe egokian aurkezten diren erreklamazio guztiak onartu behar ditu.

19. ARTIKULUA.

Erreklamazioak epe hauen barruan aurkeztu behar zaizkio epaimahai teknikoari:

19.1 Legez kanpoko mugimenduei eta bestelako arau hausteei buruzkoak, lasterketan.

19.2 Sailkapenei eta zehapenei buruzkoetan, erreklamaziogileak hiru egun baldiodun izango ditu, zehapenaren berri izan duen egunetik aurrera.

19.3 Epaimahai teknikoak ahalik eta epe laburrenean hartuko du ebazpena, beharrezkoak diren ikerketa eta lekukotasunak kontuan hartuz. Epe hori ezin izango da bi aste baino gehiagokoa izan, erreklamazioa aurkezten den egunetik aurrera.

20. ARTIKULUA.

20.1 Epaimahai teknikoak erreklamazioaren gainean hartutako erabakiaren kontra jo ahal izango da, erabaki hori eragindakoei jakinarazi eta hurrengo bi egun baldiodunen barruan.

20.2 Eskolarteko kirol jokoetako Diziiplina Batzordeari aurkeztu behar zaio errekurtsua.

21. ARTIKULUA.



Araudi honetan jasotzen ez diren kasu guztiak eskolarteko kirol jokoetako Diziiplina Batzordeak ebatziko ditu.

22. ARTIKULUA. DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria.



ERANSKINA. GYMKANA PROBETAKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

1- LISTOI BERTIKALAK	Listoien artetik pasatzerakoan haietakoren bat ukitu eta erortzen bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa ezarriko da.
2- LISTOI HORIZONTALAK (paraleloak)	Listoien artetik pasatzerakoan haietakoren bat ukitu eta mugitzen bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa ezarriko da.
2 bis.- IGAROBIDE ESTUA (igarobidea)	Listoiaren gainean dabilela ibilbidetik irtenez gero, hiru (3) puntu.
3- BIRLEN ARTEKO SLALOMA (birlak)	Pasatzeko dauden moduetatik edozeinetan (lerroan, sigi-sagan, biribilean...), birla ukitzen bada eta, ondorioz, erori edo mugitzen bada (3 cm, gutxi gorabehera), edo birlaren bat ez bada ordenan egiten, puntu bateko (1) penalizazioa ezarriko da gaizki egindako birla bakoitzeko. Penalizazioen batura hiru (3) puntu baino gehiago bada, ariketa gaizki egin dela joko da; gehieneko penalizazioa hiru (3) puntukoa da.
4- ATERAKO JAURTIKETA (baloiak)	Adierazitako distantziatik jaurtita, atean sartzen ez den jaurtiketa bakoitza puntu batez (1) penalizatuko da.
5- BALANTZA (trapolina)	Igarotzean, bukatu baino lehen, balantzatik gurpilen bat ateratzen bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du.
6- AURRERAKO SALTOA (ohol bukaera)	Prebenjaminak eta benjaminak: Gainetik igaro. Ez dago penalizaziorik. Kimuak: aurreko gurpilak ohola ukitzen badu, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du. Haurrak: gurpiletako batek ohola ukitzen badu, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du.
7- LURRETIK JASOTZEA (botilatxoa)	Botilatxoa jasotzen saiatzean erortzen bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du. Botilatxoa lurrean uzten saiatzean erortzen bada edo zonatik kanpo uzten bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du. ONGI  GAIZKI 
8- ZINTAK JASOTZEA	Hartzen ez den edo bere lekuan uzten ez den zinta bakoitzeko,



	<p>puntu bateko (1) penalizazioa egongo da.</p> <p>Saria duen zinta bat jar daiteke, besteak baino zailagoa dena. Halakoek puntu bat (-1) kenduko dute.</p>
9- UZTAIAK SARTZEA	<p>Hartzen ez den edo bere lekuan uzten ez den uzta bakoitzeko, puntu bateko (1) penalizazioa egongo da.</p>
10- LISTOIPETIK IGAROTZEA (atea)	<p>Listoien artetik igarotzean, haiek ukitu eta erori egiten badira, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du.</p>
11- GURPILA DESMUNTATZEA	<p>Gurpila kendu eta gero buruaren gainetik jasotzen ez bada edo gero ondo muntatzen ez bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du.</p>
12- ENBORRAK EDO ESKAILERAK	<p>Bizikletarekin igarotzean haien kontra edo lurrean jotzen bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du.</p>
13- PIÑOIAK ALDATZEA	<p>Piñoia ez bada aldatzen mugatutako eremuen barruan, ezarritako ordenari ez bazaio jarraitzen edo baten bat uzten bada, puntu bateko (1) penalizazioa egongo da.</p> <p>Penalizazioak, guztira, hiru (3) puntu baino gehiago badira, ariketa gaizki egintzat joko da; gehienezko penalizazioa hiru (3) puntukoa da.</p>
14- OBJEKTUAK LEKUALDATZEA	<p>Hartzen ez den edo bere lekuan uzten ez den objektu bakoitzeko, puntu bateko (1) penalizazioa egongo da.</p>
15- GLOBOAK LEKUALDATZEA	<p>Hartzen ez den edo bere lekuan uzten ez den globo bakoitzeko, puntu bateko (1) penalizazioa egongo da.</p>
16- LIKIDOAK LEKUALDATZEA	<p>Hartzen ez den edo bere lekuan uzten ez den ontzi bakoitzeko, puntu bateko (1) penalizazioa egongo da. Likidoa leku batetik beste batera eramatean isuriz gero, era berean, puntu batez (1) penalizatuko da.</p> <p>Penalizazioak, guztira, hiru (3) puntu baino gehiago badira, ariketa gaizki egintzat joko da; gehienezko penalizazioa hiru (3) puntukoa da.</p>
17- KANDELAK LEKUALDATZEA	<p>Hartzen ez den edo bere lekuan uzten ez den kandela bakoitzeko, puntu bateko (1) penalizazioa egongo da. Kandela leku batetik beste batera eramatean itzali egiten bada, horrek ere puntu bateko (1) penalizazioa izango du.</p> <p>Penalizazioak, guztira, hiru (3) puntu baino gehiago badira, ariketa gaizki egintzat joko da; gehienezko penalizazioa hiru (3) puntukoa da.</p>



18- SASKIRA JAURTITZEA	Adierazitako distantziatik baino gertuagotik egindako jaurtiketak edo saskiratzen ez direnak puntu batez (1) penalizatuko dira.
19- ZINTAK JASOTZEA	Hartzen ez den edo bere lekuan uzten ez den zinta bakoitzeko, puntu bateko (1) penalizazioa egongo da. Saria duen zinta bat jar daiteke, besteak baino zailagoa dena. Halakoek puntu bat (-1) kenduko dute.
20- LISTOIPETIK IGAROTZEA (atea)	Listoien artetik igarotzean, haiek ukitu eta erori egiten badira, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du.
21- GURPILA DESMUNTATZEA	Gurpila kendu eta gero buruaren gainetik jasotzen ez bada edo gero ondo muntatzen ez bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du.
22- ENBORRAK EDO ESKAILERAK	Bizikletarekin igarotzean haien kontra edo lurrean jotzen bada, ariketa ez da ondo eginda egongo, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du.
23- ITURA JAURTITZEA	Adierazitako distantziatik baino gertuagotik egindako jaurtiketak edo ituan geratzen ez direnak (hutsa) puntu batez (1) penalizatuko dira. Ituaren erdigunean asmatzen den jaurtiketa bakoitzeko, puntu bat kenduko da (-1).
22- UZTAIRA JAURTITZEA	Adierazitako distantziatik baino gertuagotik egindako jaurtiketak edo uztairik igarotzen ez direnak puntu batez (1) penalizatuko dira.
23- SUR-PLACE	Behin sur-place eremuan jarrita, ez bada geldirik egoten, bizikleta mugitu gabe eta gurpilari eskuekin heldu gabe, zortzi segundoz (8'') edo gehiagoz, ariketa gaizki egintzat joko da, eta hiru (3) puntuko penalizazioa izango du
24- BIRIBILARI ITZULIA	3 metroko diametroa duen biribila. Itzuli bat eta erdi egin. 3 puntuko penalizazioa.
25- KURBA ITXIA ESQUINETARA	90 graduko kurba, konoen bidez mugatua. Ibilbidetik irtenez gero, 3 puntu.
26- KURBA ITXIA EZKERRETARA	90 graduko kurba, konoen bidez mugatua. Ibilbidetik irtenez gero, 3 puntu.
27- KURBA BIKOITZA	Kurba, konoen bidez mugatua. Lehenengo eskuinera eta gero ezkerreara, edo alderantziz. Ibilbidetik irtenez gero, 3 puntu.



28- ZURRUNBILO EXOZENTRIKOA	<p>Penalizazioa: urratsen bat egiten ez bada, 3 puntu. Urrats bi edo gehiago egiten ez badira, 6 puntu.</p>
OINA LURRERA	Oina lurrean jartzen den bakoitzean, bost (5) puntuz penalizatuko da.
ARIKETA BAT EGITEN EZ SAIATZEA	Parte hartzaile bat ariketaren bat egiten saiatzen ez bada, hamar (10) puntuz penalizatuko da jarrera hori.
DENBORA	Epailak parte hartzaileari hasteko adierazten dionean hasten da, eta azken proba bukatu edo helmugako lerroa igarotzen duenean amaitzen da. Puntu berdinketa dagoenetan baino ez da kontuan hartuko denbora.